

# **EHU-ko orientazio psikopedagogiako practicumetik orientatzailearen lanbide konpetentzien ikasketa**

*Rakel Del Frago  
Garbiñe Irazu  
Javier López  
Amaia Mujika*

rakel.delfrago@ehu.es  
Hezkuntzaren Ikerkuntza eta Diagnosi Metodoen Saila  
Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea  
Euskal Herriko Unibertsitatea

**GAKO-HITZAK:** Orientazio psikopedagogikoa. Ikerketa kualitati-  
boa. Gaitasunak. Behaketa.

## **1. SARRERA**

Lan honek abiapuntutzat hartzen ditu Euskal Herriko Unibertsitateko Psikopedagogian lizentziaturan Practicumeko ikasleen esperientziak, hain zuzen ere, Orientazio Psikopedagogiako Practicumeko ibilbidekoak. Izan ere, Psikopedagogiako Titulazioan garatutako ikasleen esperientzia, prestakuntza akademikoa eta Orientazio Psikopedagogiako Practicumean eraman den lan prozesuaz baliaturik, ikastetxeetako Orientatzailearen profila aztertu izan da. Ikasketa horretatik, funtsean, orientatzailearen lan konpetentzien azterketan lortutako emaitzak aurkezten dira lan honetan.

**PRACTICUMA.** Psikopedagogian Lizentziaturaren sorrera, eskoletan ematen ari ziren ikasketa-desegokitasunei aurre egiteko beharriaz-  
nei erantzun asmoz ematen da. Bere helburua, ikasketa sistemak eta tek-  
nikak, irakaskuntza metodoak eta ibilbide didaktikoak kontuan izanik,  
ikasle, guraso zein irakasleak aholkatzeko gai izango den profesionala  
trebatzea da Euskal Herriko Unibertsitatearen gidaritzapean. Giza eta  
Lege Zientzien esparruko Titulazioa da, eta bigarren Ziklokoa besterik

ez den titulazioen multzoan sartzen da, beti ere Euskal Herriko Unibertsitatearen barne. Mota honetako gainerako titulazioak bezala, nahitaezkoa du Practicumak, 12 kreditu ditu eta bigarren kurtsoan burutzen da. Honako Practicumak, bost astetako iraupena dauka, eta hiru ibilbide desberdinen araberako hautaketa burutu behar du ikasleak lehenengo ikasturtean: Orientazio Psikopedagogiakoa, Hezkuntzari Aplikaturiko Psikopedagogia, Psikopedagogia Diferentziala. Ikasleak hautaturiko ibilbidea eta proposaturiko zentro zein enpresak kontutan harturik, Unibertsitateak horien guztien tramitazioa burutzen du. (EHU-UPV: Irakaskuntza gida, 2006-2007)

Hiru ekitalditan banatutako egitura du Practicumak: Lehenengoan, egin beharreko lana aurreikusten da, eta hortik egitasmoa sortu. Ondoren egitasmo hori aurrera eramango da lana eginez, eta azkenik, ikasleak egin duena eta gertakariak, oroitidazki bat idatziz jasoko du.

Hiru atal hauetan aurrera egiteko, Saileko Orientazio arloko irakasleen eginkizuna da koordinatzea, tutoretza egitea eta ikasleen praktikak lantoki izango diren ikastetxe eta beste erakundeekin elkarlanean antolatzea.

Honako Practicumaren helburua orientatzailearen lanbide formazioa osatzea da. Horrela, hezkuntza orientazioan lanean ari diren lagunekin elkarlanean lantokietan arituz bete nahi lirateke helburuak, Psikopedagogian Lizentziatua ikasbideak, ikasleon prestakuntza akademikoa eta jarduera praktikoa jasotzen baititu bere barnean.

Ez ikastetxeak, ez enpresak, ez eta bestelako instituzioak, ezin ditu bere kabuz lanerako beharrezkoak suertatzen diren ahalmenen gaitasunak garatu. Giza ahalmenak harremanetarako gaitasunekin, lanean izango duten jarrerarekin eta burutzen den ardura mailaren araberakoak diren gaitasunekin bat egiten dute: lankidetzarako, taldean lan egiteko, sormenerako eta kalitatea ziurtatzearen ahalmenarekin hain zuzen ere. Honakoen jabe izateko, ezinbestekoa izango da lan ingurune batean, enpresan gehien bat jardutea.

**PLANTEAMENDU TEORIKOA.** Jarduera orientatzailearen garrantzia aurrera eramaten duten profesionalen esku dago. Hori dela eta, etorkizunean orientatzaile profesionalak izateko prestakuntza eraginkor bati begira, guztiz beharrezkoa da praktiketako profesionalak orientatzaile funtzioak betetzerakoan jokoan jartzen dituzten kompetentziak, egun eta gure testuinguruan, behatu, ezagutu eta baloratu. Lan hau ikastetxeetako Orientatzailearen kompetentzien profilararen ezagutzarantz zuzentzen da.

Ikasketak kompetentzien markoa ikuspegi holístiko batetik hartu du erreferentzia gisa, hain zuzen ere, *Lan Ekintzaren Kompetentziaren* (LEK) ikuspegi integratzaile batetik. Echeverría, B. (2002; 2005) jarraituz, *Lan Ekintzaren kompetentzia* elkarloturik dauden lau dimentsio edo gaitasun desberdinez eratuta dago **Gaitasun teknikoa** (*Jakitea*, beharrezko edukiak), **Gaitasun metodologikoa** (*Egiten Jakitea*, edukien aplikazioa, pla-

nifikazio estrategia), **Gaitasun partehartzailea** (*Egoten jakitea*, jarrera irekia) eta **Gaitasun pertsonala** (*Izaten jatikea*, koherentziazko jokabidea, pertsonaren ahalmena).

Modu horretan, ikasketa honen arabera, orientatzailearen lan kompetentzia lau gaitasun hauek praktikan jartzeari, hau da, gaitasun hauek frogatzeari deritzo.

## 2. HELBURUA

Orientazio Psikopedagogiakoan jarduera profesionaleko kompetentzien zehaztapenetara hurbilpen bat burutzea izan da. Hain zuzuen ere, ikastetxeetako Orientatzailearen kompetentziak ezagutu nahi dira.

Berriro ere kompetentziak orientatzaileak bere lanean praktikan jartzen dituen gaitasunen multzoak (*jakitea*, *egiten jakitea*, *egoten jakitea* eta *izaten jakitea*) direla kontuan harturik.

## 3. METODOLOGIA

Lan enpiriko hau gauzatzeko, arestian esan den bezala, Psikopedagogia Lizentziaturako Practicumean buruturiko behaketa partehartzailea baliatuz eta gaitasunen ikuspegi holistiko batetik, ikerketa kualitatiboa burutu da. Era berean, lagin murriztuta baten bidez, Lan Ekintzen Kompetentziaren analisi arakatzailerik bat da.

Hona hemen aurrera eramandako metodologiaren ezaugarriak.

### 3.1. Parte hartzaileak

Lan taldearen partaideak hauek dira: Psikopedagogia Lizentziaturako bigarren mailako hiru ikasle, lanbidean sartzeko asmoz eta prestakuntza espezifiko bizi direnak, hau da, paraprofesionalak; eta EHU-ko Orientazio Psikopedagogiako Practicumeko irakaslea, formatzaile aditua.

Ikerketako lagina EHUKo Orientazio Psikopedagogia Practicumeko hiru esperientziaz osaturik dago: a) Bigarren Hezkuntzako hiru zentro: Gipuzkoako bi ikastetxe eta Arabako ikastetxe bat ; b) Hiru orientatzaile: zentro bakoitzeko praktiketako adituak eta ikasleen tutoreak aldi berean (Ikus taula 1).

1. taula  
**Ikasketaren lagina: hiru esperientzien laburpena**

	Lehenengo kasua	Bigarren kasua	Hirugarren kasua
<b>Kokagunea</b>	Araba Aiara eskualdea	Gipuzkoa Donostiako eskualdea	Gipuzkoa Bidasoa eskualdea
<b>Erakundea</b>	Sare Publikoa Institutua	Sare Publikoa Institutua	Sare Publikoa Eskola
<b>Hezkuntza eskaintza</b>	DBH, Batxilergoa, Erdi zein Goi Mailako HZ	DBH, Batxilergoa, EMHZ	Haur eta Lehen Hezkuntza
<b>Espazioa</b>	2 eraikin, 500m tartea.	2 eraikin, 500m tartea.	3 eraikin.
<b>Hizkuntza eredu</b>	D eta A (Batxilergoko bigarren maila bat)	A, B, D eta euskaraz salbuetsiak.	Murgiltze eredu eta D.
<b>Ikasle kopurua</b>	DBH: 227 Batxilergoa: 165 Zikloak: 110 Orotara: 502	DBH: 150 Batxilergoa: 67 Zikloak: 12 Orotara: 229	HH: 184 LH: 241  Orotara: 425
<b>Lan taldea</b>	82 profesional	56 profesional	31 profesional
<b>Orientazioko profesionala: profila</b>	Ordezkapena burutzen. Filosofia eta Hezkuntza Zientzietan Lizentziatua, Pedagogia ibilbidetik.	Behin betiko plaza. Irakasle-eskola Orokorra, Pedagogia, Psikologia, Pedagogia Terapeutikoa.	Behin betiko plaza. Irakasle-eskola eta Pedagogia.
<b>Intzidentziak</b>	Orientazio Departamendua eta Zuzendaritzaren arteko harremana, oso ahula da. Bakoitzak bere aldetik lan egiten du.	Zuzendaritza Taldeak hala erabakita, ezinbesteko bilerak burutzen dira soilik. «Bileritis» sindromea ekidin nahi da.	Ikuspegi komunitarioan oinarritzen da, eragileen arteko koordinazio eta elkarlana ematen delarik. Heziketa, komunitate guztiaren ardura da.

Hona hemen hiru kasuen deskribapena: Alde batetik Hezkuntza zen-  
 troak eta beste aldetik praktiketako orientatzaileen profila.

### 3.1.1. Laneko kokagunea. Hezkuntza Zentroak

#### LEHENENGO IKASTETXEAREN KASUA

Sare Publikoko Arabako Aiara haraneko eskualdean kokaturiko Bigarren Hezkuntza Institutua da. Bertan, Derrigorrezko zein ez derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Erdi zein Goi Mailako Heziketa Zikloak eskaintzen dira.

Hezkuntza zentroa bi eraikin desberdindutan banaturik dago, beraien artean, 500m inguru egongo delarik. Eraikin batean, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren (DBH) lehenengo zikloa (1 eta 2 mailak) eskaintzen da eta bestean aldiz, DBHko bigarren zikloa (3 eta 4 mailak), Batxilergoa eta zikloak.

Honako institutuak, Amurrio eta Aiarako bailara osatzen dituen herri eta herrixketako ikasleei egiten die hezkuntza eskaintza. Hots, Orduna, Artziniega edota Laudiotik etorritako ikasle anitza hartzen du barnean.

Ikasturte honetako (2006-2007) ikas errealitatea honakoa izan da: DBH 227, Batxilergoan 165 eta Zikloetan 110 ikasle. Orotara, datuak eskuratu zirenean, zentroan 502 ikasle zeuden izen emanak.

Horien guztien hezkuntza beharrei aurre egiteko, Institutu honek 82 profesionalez osaturiko langileria dauka.

Bertan D hizkuntza eredia eskaintzen da, nahiz eta, Batxilergoko bigarren mailan A ereduko ikasgela bat egon. Ingurunearen errealitate sozio-linguistikoa erdalduna den arren, Institutuaren hizkuntza politikak euskara lehenesten du.

#### BIGARREN IKASTETXEAREN KASUA

Sare Publikoko Donostiako Bigarren Hezkuntza Institutua da. Bertan, Derrigorrezko zein ez derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Erdi Mailako Heziketa Zikloa eskaintzen dira.

Hezkuntza zentroa bi eraikin desberdindutan banaturik dago, beraien artean, 500m inguru egongo delarik. Zentroak harrigarria den eskaintza bat du: zikloetara zuzenduriko Batxilergoa. Eraikin batean, DBH eskaintzen da, eta bestean aldiz, Batxilergoa eta zikloa.

2006-2007 Ikasturteko ikas errealitatea honakoa izan da: DBH 150 bat ikasle egon dira, eta Batxilergoa 67 ikaslek burutzen dute, eta zikloan 12 ikasle. Orotara, datuak eskuratu zirenean, 229 ikasle zeuden izen emanak.

Horien guztien hezkuntza beharrei aurre egiteko, Institutu honek 56 profesionalez osaturiko langileria dauka, horien artean dauden lanaldiak desberdinak direlarik.

Eskaintzen den hizkuntza eredia oso anitza da, A, B, D eta euskaraz salbuetsitakoa baita. Nahiz eta, DBHko lehenengo hasierako mailetan, eredu elebidun zein euskaldunaren gorakada nabaria den.

Zuzendaritza Taldeak hala adostua, zentro horretan laneko erritmoa bermatzeko «ezinbestekoak» diren bilerak soilik burutu behar dituzte irakasleek. Helburua, «bileritis» sindromea gainditzea da.

#### HIRUGARREN IKASTETXEAREN KASUA

Sare Publikoko Bidasoa eskualdean kokaturiko Haur Hezkuntza (HH) eta Lehen Hezkuntza (LH) Eskola da. Bertan, Haur Hezkuntzako maila

bakoitzeko bi gela dago, eta Lehen Hezkuntzari dagokionean ere, bi gela daude maila bakoitzeko.

Hezkuntza zentroa hiru eraikin desberdindutan banaturik dago eta ez daude esparru berean kokatuak. Eraikin batean, HHko bi urteko ikasleen gelak daude, bigarrenean, HHko 3-5 urte bitarteko ikasleak kokatzen dira eta hirugarrenean, HHko gela bat eta LH osoa kokatzen dira.

Honako eskola kokaturik dagoen testuinguru geografikoari dagokionez, eskualdea bultzatzen ari diren industrialde garrantzitsuenak kokatzen dira. Industrialde honek gainbehera gainditzeko eta enplegua sustatzeko borrokan ari dira; Europako Batasunean erabat sartzeak eta hiriko zenbait industria itxi izanak izugarri areagotu zuten enpleguaren eskasia.

Ikasturte honetako (2006-2007) ikas errealitatea honakoa izan da: HH 184 ikasle daude, eta 241 ikasle LH-ri dagokionez. Orotara, datuak eskuratu zirenean, 425 ikasle zeuden izen emanak.

Horien guztien hezkuntza beharrei aurre egiteko, Eskola honek 31 profesionalez osaturiko langileria dauka. Eskola honetan aurki ditzakegun profesionalen perfilak honakoak dira: 21 tutore, 2 ingelerako irakasle, 2 soin heziketa irakasle, musikako irakaslea, 2 pedagogia terapeutikoa (PT), aholkularia eta 2 laguntzaile.

Hizkuntza eredu nagusia D aukera da, nahiz eta, HHan, ama hizkuntzaren arabera osatzen diren taldeak, eta honakoak, LHko hirugarren mailara arte mantentzen diren. Hortik aurrera, jatorriz euskaldunak eta erdaldunak nahasi egiten dira. HHko etapan talde erdaldunak hizkuntza laguntza jasotzen du.

Eskola honek ikuspegi komunitarioan oinarritzen du bere jarduera, komunitateko eragileen artean koordinazioa emateaz gain, arazoei era komunitarioan erantzuten diete. Praktika hezigarria ez da soilik irakasleen esku gertzen, ez eta gurasoenean ere, adostutako praktika denek eramaten dute aurrera.

### 3.1.2. *Orientatzaileak*

LEHENENGO KASUA. Lanpostua, ordezkapen zerrendetan izen ematearen bidez lorturiko pertsona da. Orientazio arloari zuzendutako azken oposaketetan parte hartu zuen, eta oso kalifikazio ona lortu bazuen ere, ez zuen plaza ateratzerik lortu. Bere formazioari dagokionez, Filosofia eta Hezkuntza Zientzietan Lizentziatura buruturikoa da, Pedagogiako ibilbidetik. Urtebeteko ordezkapena burutuko du honako zentroan.

BIGARREN KASUA. Lanpostua, goranzko oposaketa bidez lorturiko pertsona da. Bere formazioari dagokionez, irakasle-eskola, pedagogia, psikologia, pedagogia terapeutikoa buruturikoa da. Urtebete darama honako zentroan lan egiten.

HIRUGARREN KASUA. Lanpostua, oposaketa bidez lortutako pertsona da. Bere formazioari dagokionez, irakasle-eskola eta pedagogiako ikasketak. 25 urteko lan eskarmentua dauka.

### 3.2. Tresnak

Lan enpiriko hau gauzatzeko informazio bilketan, estrategia eta teknika desberdinak erabili dira:

- a) **Behaketa parte hartzailea:** Practicumak iraun dituen 5 asteetan zehar, Psikopedagogia Lizentziaturan ikasleek buruturiko behaketa aktiboa da. Honako behaketa egituraturakoa da. Practicuma hasi aurretik EHUko tutorearekin aurrez adostutako honako egitura daukalarik:
  - i. Zentroan laneko prozesuen inguruan: beharrezko oinarritzko edukiak (arauegia, zentroaren antolaketa...).
  - ii. Orientazioari buruz: funtsezko ezagupenak (arauegia, eskaintza, baliabideak, psikologia, pedagogia...).
  - iii. Ahalmen pertsonalen inguruan: garrantzizko gaitasunak eta jarrerak lanbide esparru honetan lan egiteko.
- b) **Norbere egunerokoa:** Practicumak iraun dituen 5 asteetan zehar, behaketatik jasotako informazioaren isla bezala hartuta. Ikasle bakoitzak berea, non, behaketak, gogoetak, pasadizoak, eta bestelakoak jaso diren.
- c) **Unibertsitatean egindako mintegiak:** Alde batetik, Practicuma hasi aurretik Orientazio Psikopedagogiakoa hautaturiko ikasle guztiek batera burutu zuten lehenengo bilera. Bestetik, Practicuma gauzatzen ari ziren bitartean, bilera pertsonala burutu zen ikaslea eta EHUko tutorearen artean. Eta azkenik, Practicum garaia bukatzera zihoanean, Orientazio Psikopedagogiakoa hautaturiko talde osoak burutu zuen azken bilkura.

Bildutako informazio guztia **oroitidazki bat idatziz** jaso du ikasle bakoitzak. Hori dela eta, ikasketa honetan hiru oroitidazkiak oinarritzko informazio iturri gisa erabili izan dira.

### 3.3. Prozedura

Lan honek hiru ikaslek jasotako behaketan oinarritzen da, kriteriala da, jasotako informazioaren interpretazioa ikasleen irizpideetan oinarriturik baitago. Hau da, ikasle bakoitzak Practicum garaian egokitu zitzaion orientatzailearen lana behatu eta honengan, eguneko jardueran behatu ahal izan diren konpetentziak jaso dira.

Ikasleen prestakuntza aldian jasotako gaitasunak, ikerketa honetako partaide guztien artean buruturiko hausnarketaren bitartez, Lan Ekintzen Konpetentziaren ikuspegi holistikotik kategorizatu eta baloratu izan dira. Hauek izan direlarik, ondorengo prozedurarako irizpideak.

Hiru behaketetan antzemandako gaitasunak adosterako garaian, hausnarketa komunitik abiatuz, triangulazioa izan dute oinarri. Ikasleetako ba-

tek, jasotako gaitasunak azaldu ostean, gainerako biek, jasotako esperientzian betetzen zen edo ez azalduz. Era honetan, gehiengo sinplearen bidez erabakiz honako gaitasuna Orientazio Psikopedagogikoko profesionalerako esanguratsua izango ote zen.

Gaitasuna definitzeko, berau ikusitakoan emandako ebidentzia (kompetentzia) azaldu da, hainbat gaitasunarentzat, ebidentzia desberdinak azaldu direlarik. Behatutako gaitasunak izendatu eta alfabetikoki antolatu ostean, hiru kasuetan azaldutako maiztasunaren arabera kategorizatu dira, behatutako eta ekintza profesional gisa sailkatuz. Honetarako, maiztasuna izan da kompetentziak kategorizatzeke erabilitako prozedura.

Ondoren, eta metodo bera erabiliz, ahuleziak kategorizatu dira, hauen ebidentzia bermepean, kasu praktikoetan emandako maiztasunaren arabera zehaztuz.

### 3.4. **Mugak**

Edozein lan enpirikoren konplexutasuna aintzat harturik, eta bertan ematen diren mugen ezagutzaren kontziente izanda, hauen azalpena ezinbestekotzat jo da. Hau honela, ondorengoak nabarmendu dira:

Hiru kasuetatik bitan, zentroetako tutorea Orientatzaile figura zen, beste batean aholkularia. Derrigorrezko Hezkuntzan bertan, funtzio eta profesional profil desberdina duen Orientazioko profesionala aurkitu da. Horregatik, kompetentzien azterketa burutzerakoan, errealitatean ematen den desberdintasuna muga izan da.

Lan enpiriko honek jasotzen dituen hiru kasuak, hezkuntza formalean kokaturik dauden heinean, bertako figuraren (orientatzailea) baitakoak dira, ez aldiz, bestelako zentro zein enpresetan aurki daitekeen orientazioko profesionalarena (INEM, enpresak, elkarteak...)

## 4. **EMAITZAK**

Hiru emaitza mota lortu dira, lehenengo emaitza behatutako kompetentzietan dagokie, bigarrena, Orientatzailearen profesionalaren profilari dagokion gaitasunen dimentsioei egiten die erreferentzia; azkenik, Practicum behatu ahal izan den teoria eta praktikaren arteko erkaketa.

### 4.1. **Behatutako kompetentzi orokorrak**

Orientazio psikopedagogiako Practicumean, profesionalen aldetik kompetentzi desberdinak behatu eta jaso ahal izan dira. Hiru esperientzietako orientatzaileek buruturiko kompetentziak ondoan deskribatuko direnak dira.



- 1) Baretasuna:
  - Gatazka baten aurrean, gainerako profesionalak urduri eta zala-partaka zeuden bitartean, orientatzaileak bare jarraitzen zuen.
- 2) Denboraren kudeaketa:
  - Egun bakoitzerako alde zehazturiko plangintza betezen zuen orientatzaileak.
  - Ordubete zehazten bazuen lan bat gauatzeko, ordubete hori erabiltzen zuen, ez gehiago.
  - Egitekoie eskainitako denboran gauatzea lan hori. Eraginkortasuna bermatzen zuen.
- 3) Entzuten (aktiboa) jakitea:
  - Elkarrizketetan, orientatzaileak behin eta berriz egiaztatzen zuen kontatutakoa jarraitzen ari zela, hitzezko berreraikitzeen bidez.
  - Gorputz lengoaia aktiboa maneiatzen zuen (begietara begiratu, hurbilpen fisikoa).
- 4) Eskaerak jaso eta erantzun:
  - Arlo bokazionalean, orientatzaileak eskolako ikasleek egindako eskaerei erantzuna ematen zien.
  - Tutoretzaren aurrean, tutoreei erabili ahal zituzten materialaren ezagutza bermatzen zien.
  - Gurasoekin tutoreek burutu beharreko bileren aurrean, honen prestakuntzan parte hartu eta laguntzen zuen.
- 5) Esku-hartzeen prozesuaren jarraipena:
  - Egunerokoa erabiltzen zuen orientatzaileak, jarraipen hori gauatzeko. Horretarako, egindako eskaera eta egoera guztien antolaketa karpitetan gordetzen zituen, eta bertan, aurrera jotzeko beharrezko informazioa aurkitzen zuen.
  - Ikasle nahiz irakasleengana zuzenean jotzen zuen, esku-hartzearen berri jasotzeko. Adibidez, «*Aizu (ikasleari zuzentzen), emandako Unibertsitateko telefonora deitu duzu? Baliagarria izan zaizu? Zalantzak argitu dituzu?*»
- 6) Formazioa:
  - Astean behin, arratsaldean, eskolak formazio saioak eskaintzen zituen, eta orientatzaileak, horietan parte hartzen zuen.
  - Udalak antolaturiko irakasleentzako ikastaroan parte hartzen zuen.
- 7) Informazioaren trataera:
  - Sareak ezagutzen zituen eta bertatik informazio husten zuen.

- Bulegora iristen zen informazioaren analisisa egiten zuen, eta ematen zion balioaren arabera, antolatzen (alfabetikoki eta arlokakoa) zuen.
- 8) IKTen ezagutza eta erabilpena.
- Eskolako web gunean informazioa zintzilikatu eta eguneratzen zuen orientatzaileak.
  - Lan burokratikoa programa informatikoen bidez burutzen zuen.
  - Interneten informazioa bilatzen zuen.
  - Interneten bidez orientaziorako euskarriak ezagutu, eguneratu eta erosi zituen.
- 9) Komunikazio kanalak ireki eta mantentzea:
- Lan erlazio osasungarriak zituen orientatzaileak.
  - Komunitateko beste eragileekin koordinatzen zen, interesgarri eta beharrezko informazioa beraiekin partekatuz.
- 10) Konfidentzialtasuna:
- Ikasleekin konfidentzialtasunaren garrantziaz eta derrigortasunaz aritu zen orientatzailea.
  - Familiekin izandako elkarrizketen berri, soilik behar den pertsonarekin eta egoki den unean komunikatzen zuen.
- 11) Koordinazioa bermatzea:
- Koordinatzaile figura bermatzen zuen orientatzaileak.
  - Ikastetxe barneko nahiz kanpoko eragileekin koordinazioaren erantzulea zen.
  - Beste profesionalen koordinazioa bermatzen zuen.
- 12) Lankidetzatza:
- Joko kooperatiboak irakasleekin prestatzen zituen orientatzaileak.
  - Formazio programak zuzendaritzarekin prestatzen zituen.
- 13) Legalitatezko Araudia aztertu eta interpretatu.
- Ikasle nahiz irakasle egindako kontsulten aurrean, BOEra jo eta bertatik beharrezko informazioa jasotzen zuen orientatzaileak.
  - Arazo zehatzen aurrean legediaren kontsulta egiten zuen, horren interpretazioa eginez, aukera desberdinak planteatzen zituena. Arazoari bide ematen zion.
- 14) Ordenatua eta antolatua:
- Agendaren erabilera egiten zuen orientatzaileak.
  - Ordutegiaren antolaketa zehatza zuen.

- 15) Orientazio Departamenduko aurrekontuaren kudeaketa:
  - Beste profesionalekin batera, beharrezko baliabideen erosketa edo lorpenaren adostasuna lortu behar zuen orientatzaileak.
  - Beste kideei eskaeren aurrean ezetza eman zien.
- 16) Plangintza gauzatu:
  - Batxilergoko bigarren mailakoei zuzendutako hitzaldiak gauzatu zituen.
  - Zehazturiko geletako bilerak noiz eta nola zehazturik zeuden gisan garatzen zituen.
- 17) Prestutasuna edozeinen aurrean:
  - Orientaziokoak zuzenean ez diren arduretan parte hartzen zuen orientatzaileak, laguntza eskaintzen zien komunitateko beste profesionalei.
  - Parez pare aurkitzen zuen pertsonari, hitz egiteko gonbidapena luzatzen zion (ikasle, irakasle...).
- 18) Puntualtasuna:
  - Bere ordutegia zorrotzasunez betetzen zuen.
  - Bileretara puntual iristen zen. Beranduago iritsiko bazen, abisua ematen zuen.
- 19) Zentroaren antolaketaren ezagutza:
  - Bere antolaketan parte hartzen zuen.
- 20) Zentroan ematen diren arazoak interpretatzen jakitea:
  - Arazoak ikuspegi desberdinetatik ikusten zituen. Ikuspegi globala osatzen zuen, ez soilik irakasle batek kontatzen zuenaren baitakoa.

#### 4.2. Orientatzailearen profilaren gaitasunak: lanbide ekintzazkoak

Deskribatu diren hogei kompetentzi orokorrak aztertuz gero, Lan Ekin-tza Gaitasunaren lau dimentsioen arabera —Jakitea, Egiten Jakitea, Ego-ten Jakitea eta Izaten Jakitea— sailkatu izan dira. (Ikus 2. Taula). Banatze prozesu honen ondorioz, orientatzaileek betetzen dituzten kompetentziak Orientatzailearen profilari dagokien gaitasunen dimentsio guztietakoak di-rela esan dezakegu.

Beste alde, autore desberdinek, Alex, L (1991), Bunk, G.P. (1994) bi gaitasun multzoei erreferentzia egiten diete. Batzuek espezifikoki izaera dute, lanpostuarekin hertsiki lotuak, besteek izaera zabalagoa dute, gaita-

sun generikoak edo zeharkatuak deritzanak. Bigarren gaitasun hauek lanbide eskarmentuaren bidez bereganatzen dira. Gaitasun mota guzti hauek (espezifikokoak eta generikoak) Lan Ekintza Konpetentzia osatzen dute.

Azterketa jarraituz, esan beharra dago, Orientazio Psikopedagogiakoa Practicumean behariko hogeit hamar gaitasunetatik hamahiru direla hiru kasuetan berdin buruturiko gaitasunak, 2. Taulan belztuan daudenak; beste seiak, berriz, gutxitan edo hiru kasuetatik bitan soilik aurkitu direnak direla. Era honetan, bigarren sei gaitasun hauek generikoak diren bitartean, hots, jakin izaten eta jakin egoten dimentsioetakoak, aipatutako hamahiru gaitasunak espezifikokoak dira, beraz orientazioaren lanbide ekintzazkoak direla esan daiteke.

2. taula  
**Orientatzailearen gaitasunak eta lanbide ekintzazkoak**

<i>Lan ekintza konpetentzia</i>			
Teknikoak (Jakin)	Metodologikoak (Egiten jakin)	Parte hartzaileak (Egote jakin)	Pertsonalak (Izaten jakin)
4	2	9	1
6	5	11	3
7	14	12	10
8		17	15
13		18	20
16		19	
		20	
Gaitasun espezifikokoak		Gaitasun generikoak, zeharkatuak	
2) Denboraren kudeaketa		1) Baretasuna	
4) Eskaerak jaso eta erantzun		3) Entzuten (aktiboa) jakitea	
5) Esku-hartzeen prozesuaren jarraipena		9) Komunikazio kanalak ireki eta mantentzea	
6) Formazioa		10) Konfidentziasuna	
7) Informazioaren trataera		11) Koordinazioa bermatzea	
8) IKTen ezagutza eta erabilpena		12) Lankidetzatza	
13) Legalitatezko Araudia aztertu eta interpretatu		17) Prestutasuna edozeinen aurrean	
15) Orientazio Departamenduko aurrerikontuaren kudeaketa		18) Puntualtasuna	
14) Ordenatua eta antolatua		19) Zentroaren antolaketaren ezagutza	
16) Plangintza gauzatu		20) Zentroan ematen diren arazoak interpretatzen jakitea	

### 4.3. Teoria vs. Praktika

Egun bigarren ziklokoa soilik den ikasbide honetan ikasleek jasotzen duten ezagutza teorikoa izango da hizpide, Practicumean behatu diren kompetentziak bertan, alderdi teorikoan landu diren edo ez baloratu.

Horretarako, egun Psikopedagogiako Lizentziatura osatzeko indarrean dauden enborrezko irakasgaiak zerrendatu dira, eta ondoren, horietan, hiru kasuetan jardun duten ikasleek, Practicumean behatu diren konpetenzi zerrenda osatu da, hauek, zenbaki bidez islatu direlarik taulan. Hizki belztuan daudenak, Practicumak iraun dituen bost asteetan zehar behatutako lanbide ekintzazko gaitasunak dira, eta gainerakoak, burutzeke daudenak.

3. taula  
**EHUko Psikopedagogiako Lizentziaturako  
lehen ikasturteko enborrezko irakasgaiak**

<i>Lehenengo kurtsoa</i>			
Kredituak	Irakasgaia	Saila	Gaitasuna
6	Hezkuntza Diagnostika I	H.I.D.M. <sup>1</sup>	<b>4, 5, 10.</b>
4,5	Aprendizai Zailtasunak eta Psiko- pedagogi Esku hartzea I	N.E.T.R.A. <sup>2</sup>	<b>4, 5, 10.</b>
6	Orientazio eta Esku hartze Psiko- pedagogiakoaren Ereduak	H.I.D.M.	1, 2, 3, 4, 5, 6, 9, <b>10</b> , 11, 12, <b>17, 18</b> , 19, 20.
6	Hezkuntza Berezia	D.E.A. <sup>3</sup>	<b>4, 5, 6, 7, 9, 10</b> , 11, 12, <b>13</b> , 19, 20
7,5	Hezkuntza Ikerkuntza Metodoak	H.I.D.M.	<b>8, 13.</b>
6	Lanbide Orientazioa I	H.I.D.M.	<b>2, 3, 4, 5, 6, 7, 13.</b>
9	Eskolaratzearen Psikologia I eta II	D.E.A.	1, <b>3, 4, 9.</b>

<sup>1</sup> H.I.D.M: Hezkuntzako Ikerkuntza eta Diagnostika-Metodoen Saila.

<sup>2</sup> N.E.T.R.A: Nortasun eta psikologia Ebaluaketa eta Tratamendu Saila.

<sup>3</sup> D.E.A: Didaktika eta Eskola Antolakuntza.

4. taula  
**EHUko Psikopedagogiako Lizentziaturako  
 bigarren ikasturteko enborrezko ikasgaiak**

<i>Bigarren kurtsoa</i>			
Kredituak	Irakasgaia	Saila	Gaitasuna
4,5	Aprendizai Zailtasunak eta Psiko- pedagogi Esku hartzea II	D.E.A.	<b>4, 5, 6, 7, 10</b> , 11, 12, <b>13</b> , 19, 20.
6	Curriculum Diseinua, Garapen eta Berritzea.	D.E.A.	<b>8, 13</b> , 19.
6	Hezkuntza Baliospena	H.I.D.I.M.	<b>5, 10, 13</b> , 16, 19.
6	Esku hartze Psikopedagogiakoak Garapenaren Akatsetan	B.H.P. <sup>4</sup>	<b>3, 4, 5, 6, 7, 10</b> , 11, 12, <b>13</b> , 16, 19.
6	Hizkuntza Psikopedagogia	H.I.D.I.M.	19, 20.
4,5	Hautzaroaren Garaiko Historia	H.T.H. <sup>5</sup>	—
12	Practicuma (Psikopedagogi Orien- taziorako Ibilbidea)	H.I.D.I.M.	<b>1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9</b> , <b>10</b> , 11, 12, 13, <b>14, 15</b> , 16, <b>17, 18</b> , 19, 20

## 5. ONDORIOAK ETA IRADOKIZUNAK

Orientazioaren profesionalaren lanbide ekintzazko gaitasunei dagokienean, ondorengo ahuleziak sumatu dira. Horiek, landu beharreko kompetentzi gisa ulertuta. Hona hemen:

- Euskararekiko konpromiso falta. Ahal den guztietan gaztelerara jotzen du, nahiz eta zentroan profesional guztiek euskarekiko konpromiso sendoa azaldu.
- Gataskan inplikazio eza. Irakasleen arteko hika-mika batean zuzendaritza taldea inplikatu ezenez, berak gauza bera egin zuen.
- Harreman trebetasun interprofesionalerako trebezia eskasa. Irakasle bakar batzuekin harreman normalizatua darama, hots, besteekin agurtzera mugatzen da.

<sup>4</sup> B.H.P: Bilakaera eta Hezkuntzaren Psikologia.

<sup>5</sup> H.T.H: Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saila.

- **Ikasleekin eta haien motibazioekin konektatzeko arazoak.** Klase osoari zuzendutako hitzaldietan, esaten zuenera ikasleak lotzen ez zituela sumatu zen, batez ere sortutako zurrumurrurengatik.
- **Jarrera estatikoa.** Bulegotik lan egiten zuen, «burbuila barruan bizi zen denbora gehiena beste profesionalen esparruetan sartu ordez.
- **Ostrukarena egitea.** Hezkuntza praktika desegoki orokortu baten aurrean, ez ikusiarena egitea.
- **Pasibotasuna.** Ikasketa burua asteko bilerara etortzen ez zenean, zereginik ez zegoela esaten zuen, egoera aldatzeko urratsak eman beharrean.

Teoria vs praktika burutzerako garaian, Psikopedagogiako Lizentziaturak dituen 14 enborrezko irakasgaietatik, soilik bostek lantzen dituzte Orientazio Psikopedagogiako Practicumean behaturiko 20 gaitasunetatik 13 (ikus 2. taula). Enborrezko irakasgaien %35,7ak. Honako lizentziaturak dituen 150 kredituetatik, enborrezko irakasgaiek hartzen dituztenak 90 kreditu direlarik.

5. taula  
**Enborrezko irakasgaien eta behatutako kompetentzien erlazioa.**

Irakasgaia	Gaitasunak (%)	Irakasgaia	Gaitasunak (%)
Hezkuntza Diagnostika I	23	Apr. Zailtasunak eta Psiko. II	46,1
Apr. Zailtasunak eta Psiko. I	23	Curric. Diseinua, garapena eta berritzea	15,3
Orientazio eta esk. Psiko ereduak	61,5	Hezkuntza Baliostena	23,07
Hezkuntza Berezia	53,8	Esku hartze Psiko. Garapen akatsetan	53,8
Hezkuntza Ikerkuntza Metodoak	15,3	Hizkuntza Psikopedagogia	0,0
Lanbide Orientazioa I	53,8	Haurtzaroren Garaiko Historia	0,0
Eskolatzearen Psikologia I eta II	15,3	Practicuma (Psikop. Orientaziorako Ibilbidea)	100

Bigarren ondorioari dagokionez, behatutako konpetentzien inguruan egin dako balorazioa oinarritzat harturik, bi enborrezko irakasgaik 13 konpetentzi horietako bat bera ere jaso ez zutela ikusi zen. Hala ere, zenbait gaitasuna sustatzen zituztela egiaztatu zen, nahiz eta, behatutako konpetentzien barruan ez kategorizatu.

Bestetik, eta gainerako enborrezko irakasgaiei dagokienez, sumatu zen, guztietan Practicumean behatutako konpetentziak antzeman ziren arren, Practicum salbuetsita, gainerakoetan oso azaletik lantzen zirela.

Aurreko lerroetan azalduko emaitza eta ondorioak aztertu ostean, honako **iradokizuna** luzatu nahi da: *harreman trebetasunak* eta *elkarlana* orientatzailearen profilarik dagozkion oinarritzko konpetentzi gisa harturik, berau lantzeko irakasgaiak indartzea edo ezartzea ezinbesteko jo da.

Eta azkenik, honako gogoeta plazaratu nahi izan da: lan honetan zehar azaldu diren behatutako konpetentziak, Orientazio Psikopedagogiakoa Practicumaren ikuspegitik, lan enpirikoa burutu ostean jasotakoak dira, hau da, orientatzaileari, psikopedagogoari dagozkionak. Psikopedagogiako Lizentziatura, ikasketa sistemak eta teknikak, irakaskuntza metodoak eta ibilbide didaktikoak kontuan izanik, ikasle, guraso zein irakasleak aholkatzeko gai izango den profesionala trebatzea da. Orientatzea hain zuzen ere. Hau honela, jendartean honako ibilbideak duen oihartzuna, eta ikasbide honen duen sorrera eta planteamendua ikusita, baita behatu diren konpetentziak kontutan harturik, orientazioaren markoa garatzen duen karrera profesionala eskatu nahi da.

Jasotze-data: 2007/12/13

Onartze-data: 2008/9/8

## *Abstract*

---

*This article aims to present data obtained from students' experience of the practical side of Psycho-pedagogic Guidance within their Psycho-pedagogy Degree. This refers to fundamentally qualitative empirical research with the basic aim of finding out about the professional skills employed by guidance professionals along with teachers-tutors in Education Centres. Specifically, it has aimed to extract a map of the skills which guidance professionals use in their everyday work. Also, moving forward along this line, emphasising skills to be developed, formulated in terms of weaknesses, which are considered essential for quality guidance practice. For this reason, and once the skills have been identified, as a result of systematic observation and shared reflection between students during the practice period and in later research team sessions, the skills were then listed and contrasted*



with the theory studied during the two years of these second cycle studies, appearing in the set of subjects corresponding to 2005/06 and 2006/07. The study has taken a skills framework as a reference which is classified into techniques (knowledge), methodologies (practical work), participative (group work) and personal (individual) work. Among the results obtained, we can highlight: a) a clear similarity between the skills obtained by students in practical Psycho-pedagogy work during the training period and those emphasised by the literature consulted; b) a list of skills to be developed and improved (weaknesses detected from the praxis) by the teacher-tutor; c) there are five core subjects for the Psycho-pedagogy Degree which work these skills explicitly. The work concludes by suggesting the need to increase subjects working on relations and work in common as basic skills. Lastly, it suggests the need for a professional course revolving around guidance, identifying the corresponding professional as a counsellor.

**Keywords:** *Psycopedagogical guidance. Qualitative research. Competences. Observation.*

---

Este artículo pretende dar a conocer los datos obtenidos a partir de la experiencia del alumnado del Practicum en Orientación Psico-pedagógica de la Licenciatura en Psicopedagogía. Se trata de una investigación empírica de naturaleza fundamentalmente cualitativa cuyo propósito fundamental es conocer las competencias de acción profesional que desempeñan los y las profesionales de la orientación junto con el profesorado-tutor en los Centros de Educación. De forma específica se ha pretendido extraer un mapa de las competencias que utiliza el profesional de la orientación en el desarrollo cotidiano de su profesión. También, avanzar en ésta línea haciendo hincapié en las competencias a desarrollar, formuladas en clave de debilidades, y que se consideran imprescindibles para una práctica orientadora de calidad. Para ello, y una vez identificadas las competencias, fruto de la observación sistemática y de la reflexión compartida entre el alumnado durante el periodo de prácticas y en sesiones posteriores del equipo de investigación, se ha procedido a la enumeración de las mismas, así como al contraste con la teoría estudiada durante los dos años de duración de estos estudios de segundo ciclo, que se materializa en el conjunto de asignaturas correspondientes a los cursos académicos 2005/06 y 2006/07. El estudio ha tomado como referencia el marco de las competencias categorizadas en técnicas (saber), metodológicas (saber hacer), participativas (saber estar) y personales (saber ser). Entre los resultados obtenidos destacamos: a) una clara semejanza entre las competencias obtenidas por los y las estudiantes del practicum de Psicopedagogía durante el periodo formativo y las señaladas en literatura consultada; b) un listado de competencias a desarrollar y mejorar (debilidades detectadas desde la praxis) por parte del profesional profesorado-tutor; c) las asignaturas troncales de la Licencia-

*tura de Psicopedagogía que trabajan dichas competencias de forma explícita son cinco. Se concluye el trabajo planteando la necesidad de aumentar las asignaturas que trabajen como competencias básicas las relaciones y el trabajo en común. Se sugiere, finalmente, la necesidad de una carrera profesional enmarcada en la orientación, siendo el orientador u orientadora el término de identificación del profesional.*

**Palabras-clave:** Orientación psicopedagógica. Investigación cualitativa. Competencias. Observación.

---

*L'objectif de cet article est de faire connaître les résultats obtenus à partir de l'expérience des élèves de Licence de Psychopédagogie lors de leur stage d'Orientación Psychopédagogique. Il s'agit d'une recherche empirique de nature essentiellement qualitative dont l'objectif fondamental est de connaître les compétences d'action professionnelle exercées par les professionnels de l'orientation travaillant avec les professeurs-tuteur dans les Centres Éducatifs. Très concrètement, on a voulu extraire une carte des compétences utilisées par le professionnel de l'orientation dans l'exercice de sa profession au quotidien. On a également voulu avancer dans ce sens en insistant sur les compétences à développer, formulées en points faibles et considérées comme indispensables à un travail de qualité en matière d'orientation. Dans ce sens et après avoir identifié les compétences, conséquence de l'observation systématique et de la réflexion partagée avec les élèves au cours des périodes de stages et lors des séances suivantes de l'équipe de recherche, on a procédé à l'énumération de celles-ci ainsi qu'au contraste par rapport à la théorie étudiée au cours des deux années de second cycle matérialisé par l'ensemble des matières des années 2005/06 et 2006/07. L'étude a pris pour référence le cadre des compétences classées en différentes catégories, techniques (savoir), méthodologiques (savoir faire), participatives (savoir agir) et personnelles (savoir être). Parmi les résultats obtenus, on soulignera : a) une nette similitude entre les compétences acquises par les étudiants lors du stage de Psychopédagogie réalisé en période de formation et celles relevées dans la bibliographie consultée; b) une liste des compétences à développer et améliorer (faiblesses relevées depuis la période de stage) par le professionnel professeur-tuteur; c) le tronc commun de la Licence de Psychopédagogie qui permet de faire travailler explicitement ces compétences sont au nombre de cinq. La conclusion du travail aboutit sur le besoin d'augmenter le nombre de matières qui permettent de faire travailler les compétences de base, à savoir les relations et le travail de groupe. Est finalement suggéré le besoin d'un cursus professionnel encadré par l'orientation, le conseiller ou la conseillère d'orientation constituant la limite d'identification du professionnel.*

**Mots clé:** Orientación psicopedagógica. Recherche qualitative. Competencias. Observación.

## BIBLIOGRAFIA

- ALEX, L. (1991): «Descripción y registro de las cualificaciones». *Revista Europea de Formación Profesional*, 2, 23-27.
- BUNK, G.P. (1994): «La transmisión de las competencias en la formación y perfeccionamiento profesionales de la R.F.A.». *Revista Europea de Formación Profesional*, 1, 8-14.
- ECHEVERRÍA SAMANES, B. (2002): «Gestión de la Competencia de Acción Profesional». *Revista de Investigación Educativa (RIE)*, 20,1, 7-43.
- ECHEVERRÍA SAMANES, B. (2005): *Competencia de acción de los profesionales de la orientación*. Madrid: ESIC.
- EHU-UPV: Irakaskuntza gida, 2006-2007.